

ARDI LATXAREN ARTILEA APROBETXATZEKO IRTEEREN BILA DABILEN PROIEKTU BERRITZAILEA

- **Proiektu honen gidaritza Latxa Esneak darama, Ekolber, Neiker, Arabalanda, Bizkaimendi eta Landaolarekin batera, eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzarako ematen dituen laguntzen onuradun izan da.**
- **Hori abian jarrita, irteera egonkor bat eman nahi zaio ardi latxen artaldean artilearen bolumen guztiari, gaur egunean kudeaketa txarra duen hondakin bat baita.**
- **Proiektu honen eskutik egiaztatu ahal izan da latxaren artileak, keratina naturalean duen edukiagatik, soka biodegradagarri eta konpostagarrien hainbat prototipo lortzeko aukera ematen duela, baratze eta negutegietako landare igokarien tutore moduan erabili ahal izateko.**

Latxa Esnea etxeak gidatutako Talde Operatiboak, bertan lankide direla Landaola, Arabalanda, Bizkaimendi –Euskadiko hiru lurraldeetako Landa Garapenerako Elkartek–, Ekolber eta Neiker, abian jarri du “latxa ardien ustiapenetako artilearen balorizazioa” izeneko proiektu berritzaile bat, ardi latxaren artilearen erabilerari ohikoa ez den alternatiba bat emateko helburuarekin eta oso kontziente izanik LANKIDETZA edo elkarlana dela sektoreak ditne zailtasunei irtenbidea aurkitzeko oinarria.


Gaur egun, latxa ardien ustiapenetako artile gordina kudeaketa zaila duen hondakina da, gastuak bakarrik sortzen dituena.

Proiektu hau abian jartzearekin latxa ardien artilearen bolumen guztiari irteera egonkorra eman nahi zaio, artile mota hau aparteko bihurtzen duen espezifikotasuna aprobetxatuz.

Artile honek duen keratina natural kopuruari esker, eta disolbagarririk gabe trata daitekeenez, latxaren artiletik soka biodegradagarri eta konpostagarrien hainbat prototipo lor daitezke, baratze eta berotegietako landare igokarien tutore moduan erabiltzeko.

Soken prototipo hauek ekoizpena bultzatu aurretik, beharrezkoa izango da negozioaren behar kuantitatibo eta kualitatiboak beteko dituen artile-horniketaren diseinu eta kudeaketa lan bat egitea, ustiapenetan beraietan lana antolatzeko oinarri bat finkatuko duena, ondo planifikatu eta baldintza justuetan artile hori modu egokian hornitu ahal izan dezaten.

Latxa ardiaren sektorearekin dugun konpromisoa da, sektore horrek berez sortzen duen jasagarritasun soziala zein ingurumen arlokoa mantentzen jarraitzeko, eta aldi berean alderdi ekonomikoa ere bultzatzeko, jarduera errentabilizatzen laguntzeko ustiapen horietan sortzen diren produktuetako bat balorean jartzearen bidetik.



Nor da nor Talde Operatibo honetan



Latxa Esnea Koop. Jaio zenetik garbi izan du eta mantendu du elkarrekin lan egitearen bidetik indartu egiten direla kide bakoitzaren ahaleginak, helburu bateratua lortzeko. Horren harira kooperatiba honetan elkartu ziren latxa artaldeak zituen hainbat artzain, emakume zein gizon, sektorearen traktorea den erakunde moduan jokatzeko duen egitura emanaz, eta horrela elkartu nahi izan da proiektu hau aurrera eramateko egokia den diziplina desberdinak elkartzen dituen taldea.



Ekolber: Artilea oinarri hartuta plastiko biodegradagarria egiteko beharrezko den teknologiaren garapenera bideratua dagoen enpresa. Prototipoak egiten ditu, eta haren propietateak neurtuko ditu.



Neiker: Teknologia zentro gisa, artileari eman dakizkiokeen erabileren gaineko ezagutza zientifikoa emango du, bai eta ingurumen aldetik duen inplikazioaren ikerketa, eta proiektuan ematen joango diren urratsak balidatu ahal izateko beharrezkoak diren probak ere bai.



Landa Garapenerako Federazioak: Lurralde bakoitzetik dauden ordezkari bidez, lotura zabalagoa egingo dute sektore guztiarekin, eta ekoizleen eta tokian tokiko eragileen dinamizazioa ere bai, garatuko diren soluzioak erabiltzeko dauden beste aukera batzuk identifikatzeko eta erakusteko. **Arabalanda, Landaola** eta **Bizkaimendi** dira, Euskadiko hiru lurraldeetako Landa Garapenerako Elkarteak, hain zuzen ere.

“Latxa ardien ustiapenetako artilearen balorazioa” izeneko proiektuan egin den lana Nekazaritzaren produktibitate eta jasangarritasun arlorako Berrikuntzarako Elkarte Europarraren (BEE-AEI) Talde Operatiboaren sorrera eta funtzionamendurako laguntzari atxikitzen zaio, eta % 80an Landa Garapenerako Nekazaritza Funtza (LGENF-FEADER) funtsaren eta Eusko Jaurlaritzaren bidez dago finantzatua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 Erregelamenduaren (UE) 35. artikuluan aurreikusitako dauden lankidetzarako laguntzen bidez.



Fondo Europeo de Desarrollo Rural:
Europa invierte en las zonas rurales



UN PROYECTO INNOVADOR BUSCA ALTERNATIVAS PARA EL APROVECHAMIENTO DE LA LANA LATXA

- **El proyecto liderado por Latxa Esnea, junto con Ekolber, Neiker, Arabalanda Bizkaimendi y Landaola, ha sido beneficiario de las ayudas a la cooperación de Gobierno Vasco.**
- **Con su puesta en marcha se pretende dar una salida estable al volumen total de la lana de rebaños latxos que actualmente supone un residuo de difícil gestión**
- **De mano de este proyecto se ha podido comprobar que, gracias al contenido en queratina natural, la lana latxa permite obtener varios prototipos de cuerdas biodegradables y compostables para poder utilizarlas como tutores de plantas trepadoras de huertos e invernaderos**

El Grupo Operativo liderado por Latxa Esnea y en el que trabajan codo con codo Landaola, Arabalanda, Bizkaimendi - Asociaciones de Desarrollo Rural de los Tres Territorios de Euskadi -, Ekolber y Neiker ha puesto en marcha un proyecto innovador para la “valorización de lana de explotaciones de oveja latxa”, a fin de buscar una alternativa no convencional al uso de la lana de oveja latxa y conscientes de que la COOPERACIÓN es la base para encontrar soluciones a las dificultades del sector

Actualmente, la lana en bruto de las explotaciones de ovejas latxas supone un residuo de difícil gestión que únicamente genera gastos. Con la puesta en marcha de este proyecto se pretende dar una salida estable al volumen total de la lana de rebaños latxos, aprovechando la especificidad de esta lana que la hace única.

Gracias a su contenido en queratina natural, y pudiendo tratarla sin disolventes, la lana latxa permite obtener varios prototipos de cuerdas biodegradables y compostables para poder utilizarlas como tutores de plantas trepadoras de huertos e invernaderos.

Antes de promover la producción de este prototipo de cuerdas será necesario realizar un trabajo de gestión y diseño de abastecimiento de lana que satisfaga las necesidades de negocio, cuantitativas y cualitativas que asiente la base para organizar un trabajo en las propias explotaciones que planificado y en condiciones justas puedan suministrar adecuadamente la lana.

Se trata de un compromiso con el sector de ovino latxo en aras de mantener la sostenibilidad tanto ambiental como social que ya de por sí genera este sector, además de potenciar el aspecto económico que ayude a rentabilizar la actividad a partir de la puesta en valor de uno de los productos generados en la explotación.



El Quién es quién de este Grupo Operativo



**Latxa
esnea**

Latxa Esnea Koop. Desde su nacimiento ha mantenido la convicción de que con el trabajo en equipo se potencian los esfuerzos de cada miembro para lograr el objetivo común. Así se unieron en esta cooperativa pastoras y pastores de rebaños latxos, aportando la estructura que actúa como entidad tractora del sector, y así ha querido aunar a un equipo multidisciplinar idóneo para llevar adelante este proyecto:



Ekolber. Es la empresa dedicada al desarrollo de la tecnología necesaria para la fabricación del plástico biodegradable a partir de la lana. Fabricará los prototipos y medirá sus propiedades.



Neiker. Como centro tecnológico, aporta el conocimiento científico sobre los posibles usos que pueden darse a la lana, el estudio de su implicación medio ambiental, y las pruebas necesarias que puedan validar los pasos a ir dando en el proyecto



Federaciones de Desarrollo Rural. A través de una representación por cada territorio, harán la labor de conexión más amplia con todo el sector, dinamización de productores y agentes locales para muestra e identificación de otras oportunidades de uso de las soluciones que se desarrollen. Son **Arabalanda, Landaola y Bizkaimendi** - Asociaciones de Desarrollo Rural de los Tres Territorios de Euskadi.

El trabajo desarrollado en el Proyecto “Valorización de la lana de explotaciones de ovino latxo”, se acoge a las ayudas a la creación y funcionamiento de Grupos Operativos de la Asociación Europea de Innovación (AEI) en materia de productividad y sostenibilidad agrícolas, estando financiado en un 80% por el Fondo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) y el Gobierno Vasco, a través de las ayudas a la cooperación, previstas en el artículo 35 del Reglamento (UE) 1305/2013, de Parlamento Europeo y del Consejo.

Más información:

Latxa Esnea Koop. (Virginia Ortiz de Barrón):

Tel. 672 247 145

Email: latxaesnea@gmail.com



Fondo Europeo de Desarrollo Rural:
Europa invierte en las zonas rurales

